



**PATRONAL; SI BLOQUEAIS LA
NEGOCIACION
¡¡NOSOTRAS OS BLOQUEAREMOS!!**
Apirilak 13,14,15,16 de abril
HUELGA EN LIMPIEZAS
GARDIKETAK BORROKAN LAB

Editoriala

Orain dela urtebete osasun krisi batek gure bizitzak astindu zituen bizitza vs. kapital gatazka ageriago utziz. Argi gelditu da bizitzak zeintzuk eta ze baldintzetan sostengatzen ditugun. Baina nahiz eta ezinbestekoak garen, berez txarrak ziren lan baldintzak ez dira hobetu. Prekariatatea kronifikatu egin da sektore feminizatueta.

Horregatik bizitzak erdigunean jartzen duen gure ildo feminista ezinbesteko da. Zaintza lanen egoera irauli behar dugu, emakume* langileon lan baldintzak salatu eta borrokatu behar ditugu, sektore feminizatuak lehen lerrora ekarriz. Eta norabide honetan kokatzen dugu, etxeko langileen lan baldintzen aldeko borroka.

Lantokietan ematen diren diskriminazioekin amaitzeko gure ildoak garatzen ari gara ere. Horretarako, alde batetik, berdintasun planen gida berri dugu eta formazioa ematen ari gara. Eta bestetik, sexu-jazarpena, jazarpen sexista edo sexu arrazoiatik jazarpenari aurre egiteko protokoloa berritzen ari gara, tresna horien bitartez jauzi berriak eman ahal izateko.

Ekintza sindikal feministan eman ditugun urratsak nabarmenak dira, baina praktika feministan sakontzeko ezinbesteko tresna formazioa denez, kurtso honetan eta oztopo guztien gainetik, Eskola Feministarekin jarraitzea erabaki dugu.

Inoiz baino premiazkoagoa da kapitala haustea eta gure bizitzak erdigunean jartzea!

➤ Orain dela urtebete osasun krisi batek gure bizitzak astindu zituen bizitza vs. kapital gatazka ageriago utziz. Argi gelditu da bizitzak zeintzuk eta ze baldintzetan sostengatzen ditugun.



Emakume* langileok borrokan #siempreesenciales

Sektore feminizatueta, duintasuna eta aitortza! Prekarietatea arrakalatu. Gure lanek sostengatzen dute bizitza.

Aurten martxoaren 8an oso mezu argiarekin ateraginen. LABek emakume* langileon borrokan paus SENDOAK emateko konpromiso irmoa adierazi zuen.

Pandemia baten eta krisi batean murgilduta gaude. Orain dela urte bat hasitako egoerak emakumeok lehen lerroan gaudela eta gure ekarpena ezinbestekoa dela agerian geratu da.

12 hilabete hauetan zaintza langileak funtsezkoak direla eta beraiek gabe bizitza ezinezkoa dela esan da behin eta berriro. Hunkigarria da txalotzea eta egiten duten lanaren garrantzia goraiatzea.

Baina guzti hau praktikan jarri behar denean bukatzen dira erraztasunak eta oztopoak besterik ez dira jartzen. Ez dira berez txarrak ziren lan baldintzak hobetu. Ez dira plantillak indartu, ez dira ratioak handitu hirugarren adineko egoitzetan, ezta etxez etxeko laguntza zerbitzuan. Lan osasuna ziurtatzeko ezer.

Testuinguru honetan Sektore feminizatuen egoera salatzen dokumentua aurkeztu genuen. Azterketa honetatik ateratu ditugun ondorio nagusiak hauek dira:

Emakumeak* gara behin-behinekotasun eta partzialitate tasa altuenak dituen kolektiboa. Lan eremura bigarren mailako langile gisa sartzeak ez du soldatetan soilik eragiten, baita lan baldintzei dagokienean ere. Egun, behin-behinekotasuna enplegu ezegonkor eta prekarioaren sinonimo bihurtu da.

Jardunaldi partzialetan lan egiten duten langileei dagokionez ere beste hainbeste esan dezakegu. Bada, emakumeon* behin-behinekotasun tasa gizonezkoena baino zortzi puntu altuago da, eta partzialitate tasa hogei puntu altuagoa.

LABek Euskal Herriko Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren proposamena eguneratu du 2021ean 1400 eurora igoz. Hego Euskal Herrian aplikagarri diren sektore feminizatuen hitzarmenak aztertuz, langile edota kategoria gehienak kopuru horren azpitik kokatzen direla ondorioztatu dugu.

Beraz, 2021. urtean hileko 1400 euro gordin baino soldata apalagoek ez dute bermatzen bizitza duin bat garatzeko aukerarik. Hego Euskal Herrian langileon lan baldintzak arautzen dituzten hitzarmenak aztertutik, langile anitz dago gutxieneko soldata hori bermatu gabe, are gehiago emakumeon* kasuan. Izan ere, aztertu ditugun sektore feminizatueta hitzarmen ia guztietan daude kategoriak soldata horren azpitik.

Lehen aztertu den bezala sektore feminizatueta bat zerbitzu pribatuak dira. Eremu pribatuko hitzarmenen bidez euren lan baldintzak arautzen dizkieten eta sektore feminizatueta lanean ari diren langile gehienak duin bizitzeko behar genukeen gutxieneko soldataren azpitik ari dira jasotzen euren lanaren truke. Ondorio horretara iritsi gara hitzarmen horiek aztertu ostean. Hitzarmen guzti-guztiekin dituzte hilean 1400 euroren azpitik ordainsaria duten duten kategoriak.

Elikagaigintza merkataritzan 932 euro gordineko soldatekin topo egingo dugu, eta merkataritza orokorrean 816 eurokoekin. Eraikin eta aretoetako garbiketa ere aipatzeko modukoa dugu, izan ere, herrialde guztietako hitzarmenetan kategorien erdia baino gehiago dago proposatzen dugun Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren azpitik.

Azpirarragarria hala ere, 1400 euro azpiko soldatarik jasotzen ez duen hitzarmenen bat bera ere ez dugula feminizatu gisa identifikatu.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) langileen %8,3ak ez ditu inoiz bere lan baldintzak lan hitzarmen bidez arautu. Horietatik %75a emakumezkoa* da.

Arautze eza prekarietatearekin lotu beharra daukagu. Langile horien artean gehiengoa gainera etxeko langileak dira, lan baldintza okerragoak jasotzen dituen erregimen berezi baten pean, oraindik eta egoera prekario eta kalteberagoan. Euren lan baldintzak hitzarmen baten bidez arautzen ez dituzten langileen multzoan 4tik 3 emakumeak dira.

Aipatu ditugun arrazoi guztiek besteak beste gizonezkoen soldata emakumezkoena* baino %29,4 altuagoa izatea ahalbidetzen dute. Azken hamar urteetako bilakaera aztertuta gainera, hobekuntzarik ez dela egon ondorioztatu dugu. Sistema patriarkalak generoaren arabera lan banaketa ezarri digu, eta lan eremura bigarren mailako langile gisa sartu gara. Ondorioak argiak dira.

Era berean, pentsioetan ere generoaren arabera soldata arrakala egiturazkoa da. Izan ere, pentsio sistema sortzeko garaian gizonezkoen ordainduriko lanean oinarritu zen. Aldaketak aldaketa, sistemaren oinarriek bere horretan dira gaur egun ere.

Gainera, generoaren arabera soldata arrakalak urte urte bere horretan jarraitzen du esan bezala. Arrazoi horiek guztiek pentsioetan ere genero arrakala sakona egotea ahalbidetzen du, soldatetan dagoen arrakala baino sakonagoa hain zuzen ere. Izan ere, gizonen pentsioak emakumeenak* baino %68,4 altuagoak dira. Emakume* pentsiodunen artean pobrezia hedaturik dagoela egiaztatu ahal izan dugu era berean.

Egoeraren azterketarekin bukatzeko egun zaintza eta sektore feminizatuekin lotura duten hitzarmen nagusiak blokeo egoeran daudela esan beharra dago.

Adineko egoitzetan ez dira hitzarmen berriak sinatu eta patronalaren ez du negoziatzeko asmorik.

Oro har, langile ez nahiko, lan kargahandiegia sortzen dutenak eta lan-arrisku ergonomiko eta psikosozialeko esposizio handia dutenak. Erabiltzaileek ez dute behar duten asistentzia eta kalitatea jasotzen. EAEko eta Nafarroako Adineko egoitzen arautzen dituzten dekretuek, ez dituzte egungo ratioak hobetzen. Dekretuek, irizpide ekonomizista pribatizatzaile batean daude oinarrituta.

Emakume* langileok kalera lemapean egoera prekarioari aurre eginez ofentsiba feminista antolatzeko deialdia luzatu egin dugu azken hilabetetan. Tresna legalak eta baldintza duinak behar ditugu gure egoera aldatzeko. Orain ezinbestean hitzarmen kolektibo propioak eta bertakoak borrokatu behar ditugu.

Etkez etxeko laguntza zerbitzuan berdin daude, ez dira bermatzen kontratatutako dituzten lanaldiak, eta ez da bermatzen langileen lan-osasunen eskubideak. Sektore hori adin ertaineko emakumeek osatzen dute, eta lanaldi partzialen ehuneko handia du. Salatu nahi dugu, udal etxeek, subasta batzuetan bilakatzen dituzte lizitazioak eta aldi berean, erabiltzaileei esleitzen dizkieten zerbitzu-orduak ez dira nahikoak.

Eta bereziki aipatu beharra dugu, etxeko Langileak, beraien lan baldintzak erregulatzen 1620/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, familia-etxeko zerbitzuaren lan-harreman berezia arautzen duena. Egoera guztiz prekarioan bizi dira inolako babesik gabe.

ETA EGOERA HONEN AURREAN ZER, Sistema heteropatriarkal honetan emakumeok *prekarietatean bizitzera kondenatuak gaude. Sexuaren lan banaketarekin bukatzeko garaia da. Martxoaren 8an honako aldarrikapenak proposatu genituen:

- ① Zaintza lan guztien duintasuna ziurtatzea. Aitortza politiko, ekonomiko eta soziala. Zaintza langile guztien erregulazioa. Zaintzaile bat ere ez eskubiderik gabe.
- ① Lan baldintza egokiak sektore feminizatu guztietan.
- ① Soldaten genero arrakala deuseztatzea.
- ① Zor patriarkala aitortzea.
- ① Hitzarmen kolektibo propioak eta bertakoak sektore feminizatu guztietan.

Zaintzarako euskal sistema publiko komunitarioaren beharra

2017ko gure azken biltzarretik, zaintzarako euskal sistema publiko komunitarioaren ideiak indarra hartu du. Ideia hori aldarrikatu izan dugu kapitala-bizitza gatazkaren arazo nagusiari irtenbidea emateko asmoz: zaintza lanen bidezko banaketa soziala.

Gaiari buruz sakonki eztabaidatzeko ariketa kolektiboa egiteke dugu. Sistema hori LABentzat zer den, nola irudikatzen dugun edo hura eraikitzekeko elementu komunak zeintzuk izango lirakekeen definitzeko.

Premia larria

Azkenaldian zaintzarako euskal sistema publiko komunitario baten beharraz luze hitz egiten ari gara eta horretarako arrazoiak asko dira: zaintzaren inguruan sortutako ustiapenarekin eta negozioarekin amaitzea eta pertsona guztientzako zaintza-eredu bidezkoagoa eraikitzea. Hala ere, oraindik ez dugu gauzatu hizpide dugun sistema hori definitzeko eta forma emateko ariketa kolektiboa.

Egiteke dugu esertzea eta jendartearen artean zer sistema nahi dugun eta zertarako nahi dugun partekatzen hastea; zertaz ari garen zehaztu behar dugu, eta modu partekatuan eta kolektiboan egin behar dugu. LABek jardunaldi bat antolatuko du ekainean, gure ideiak argitu ahal izateko, gainerako eragileekin partekatzeko unea iristen denerako.

Zaintza lanen egiturazko banaketa bidegabea

Mugimendu feministak sistemari beste ikuspegi batetik begiratzen hasteko gakoak jarri zituen mahai gainean, eta bere "abizen" guztiekin izendatu zuen: sistema kapitalista, heteropatriarkala, arrazista, kolonialista eta ekozida. Halaber, kapitala-lana gatazka zabalagoa zela ulertzeko pistak eman zizkigun, bizitza ere hartzen zuena. Kapital-bizitza izeneko gatazka konponezin honek, bizitza kapitalismoan ezinezkoa zela ulertarazten zigun, hau, kapitala bizitzari erasotuz mantentzen baitzen.

Euskal Herrian, ideia horrek bi urteko mobilizazio jendetsuak eta zaintza-grebak ekarri zituen, bizitza ez zela bere kabuz mantentzen salatzen; izan ere, zaintza lanen itxurazko "normaltasunaren" atzean, emakumeek* egindako zaintza lan guztien esplotazioa eta errekonozimendu falta orokorra zeuden.

Bizitzaren sostengarritasunerako zaintzen beharra

Egun, ez du inork zalantzan jartzen, zaintzak beharrezkoak eta ezinbestekoak direla bizitzari eusteko, pertsona guztiok zaintzak behar ditugula edo beharko ditugula gure bizitzan zehar.

Baina ez dago adostasunik zaintza horiek nola, nor eta zein baldintzatan eman beharko lirakekeen, inoren esplotazioa edo irabazi asmorik gabeko

negozioa izan ez dadin, ezta dagokion zaintza-kuota egitetik inork ihes egin ez dezan ere.

Gaur egun, zaintzak dira gure jendartearen balore baxuena duen lanak. Emakumeak* gara lan-merkatuan modu guztiz prekarioan edo etxeetan doan ematen ari garenak, erantzunkidetasunik eza dela eta. Lan-merkatutik ematen direnean, egoera negargarria da: pribatizazioa, ikusezintasuna, negozioa, feminizazioa eta erabateko prekarietatea.

Lan-baldintzak negargarriak dira: lanaldi amaigabeak, miseriakosoldata, behin-behinekotasuna eta partzialtasuna kontratazioetan, laneko segurtasun



Premiazkoa da zaintzarako sistema hori definitzea, eta haren eraikuntzan ados jartzea, zeregin horietan diharduten milaka emakumeek bizi duten esplotazioa eta esklabotza egoera ez betikotzeko. Eten dezagun negozioa, bermatu dezagun zer-bitzua publikotik.





eta osasun falta, zaintzak behar dituzten pertsonak duintasunez artatzeko ratio eskasak...

Zaintza lanen aitortpen ekonomiko, sozial eta politikoaren erabateko gabezia dago, eta horrek ondorioak ditu: lan baldintza kaxkarretan emakume askoren esplotazioa, zaintza lanen banaketarik eza eta zaintzaren inguruan sortzen ari den negozio itzela, batez ere oinarritzko zerbitzuetan, hala nola etxez etxeko laguntzan eta adinekoen egoitzetan. Gainera, ez da ahaztu behar emakume migratuak eta arrazializatuak diskriminazio handiagoa jasaten ari direla. Etxeko langileei begiratu besterik ez dago. Hau da, sexuaren arabera lan banaketari buruz hitz egiten badugu ere, gaur egun dagoen jatorri zein arrazaren arabera lan banaketa ere gehitu behar zaio horri.

Premiazkoa da egoera hori behingoz iraultzea


Ezin dugu beste aldera begiratzen jarraitu adinekoen egoitzen eta etxez etxeko laguntzen inguruan sortu den negozioaren aurrean. Beharrezkoa da zaintzak modu bidezkoagoan eta justuagoan banatzea eta horretarako beharrezkoak diren mekanismoak lehenbailehen martxan jartzea. Derrigorrezkoa da zaintzarekin lotutako sektore feminizatuak zer lan egoeratan dauden aztertzea eta egoera hori behingoz aldatzea.

Horregatik guztiagatik, eta sindikatu gisa ekarpen handia egiteko daukagula uste dugulako, zaintza sistema definitzen hasi nahi dugu, egungo antolaketa eraldatzeko aukera berriak irekiz.

Horri guztiari buruz eztabaidatzeko antolatuko ditugun jardunaldietan, kolektiboki eta sindikatu bezala, galdera hauei erantzuten saiatuko gara: zeri deitzen diogun zaintza, zer definitzen dugun publiko gisa eta zer komunitario gisa. Hori guztia nola gurutzatzen den lan munduan eta, hortik, zein izan daitekeen gure ekarpena.

Azken finean, hizpide dugun sistema hori definitzen, lurreratzen eta zehazten joatea litzateke asmoa. Orain dagoen bezala jasanezina delako.

Fotoberriak



➤ Indarkeria matxista identifikatu, salatu eta borrokatu!

Indarkeria matxista egiturazkoa da. Lantokietan ere gertatzen da eta guztion ardura da baliabide eta mekanismo guztiak martxan jartzea, horrelakorik gerta ez dadin. Indarkeria matxistaren aurkako protokoloek duten garrantzia azpimarratu nahi dugu. Azaroaren 25ean hainbat lantokien aurrean mobilizatu ginen, protokoloak exijituz.



➤ Otsailak 22, soldata arrakalaren kontra

Soldata arrakalaren kontra, sexuaren araberako lan banaketarekin apurtu! Zaintzarako zerbitzuak publikatu!

Sexuaren araberako lan banaketarekin amaitzea ezinbestekoa da soldata-arrakalarekin bukatzeko. Lan-baldintza duinen bidez, feminizatutako lan guztiak aintzatetsi behar dira, eta botere publikoek lan-bereizketa hori amaitzeko betebeharra dute, enpresak kontratazio diskriminatzailerekin amaitzera behartuz. Gure lanak funtsezkoak badira, lan hauek egiteko lan baldintza duinak izan behar dira.



➤ Martxoak 8, sektore feminizatueta duintasuna eta aitortza!!

Labeko emakumeok* bildu ginen martxoaren 8an, sektore feminizatuen egoera salatzen. Ardura politiko osoa duen alderdiaren aurrean mobilizatu ginen eta gure lan tresnak utzi genizkien, pobrezia eta negozioa izan dira beraien jokabidearen ardatzak. Ezinbestekoak gara, eta lan baldintza duinak nahi ditugu. Prekarietateari aurre egiteko ofentsiba sindikal feminista antolatzen konpromisoa hartu genuen.



➤ Indarkeria matxista kasuen kudeaketarako barne protokoloa aurkeztu dugu

Indarkeria matxista kasuen kudeaketarako barne protokoloa aurkeztu dugu LABen. Klabe eraldatzaile eta erreparatzaileetan oinarrituta dago osatutako protokoloa, sindikatuaren estrategia feminista eta berau garatzeko martxan dugun Plan Feministaren logikaren baitako bitarteko gisa.

Hain zuzen ere, gaurko errealitatetik abiatu lagunduko digun tresna da, baliagarria eta praktikoa izateko helburuarekin. LABen komunitatearen baitan eman daitezkeen indarkeria matxista kasuen aurrean, kudeaketa koherente eta kolektiboa gauzatzen lagunduko digu, baita prebentzioa, trebakuntza eta gogoeta kolektiboari heltzeko aukera eskaini ere.

Zubi guztien gainerik. Mugarik EZ! Trasnazionalik EZ! Bizitzeko erresistitzen dugu, eraldatzeko martxan gaude



2020ko Azaroaren 17an, Mundu Martxako Nazioarteko V. Ekimenari hasiera eman genion Euskal Herrian. "Zubi guztien gainerik. Mugarik EZ! Trasnazionalik EZ! Bizitzeko erresistitzen dugu, eraldatzeko martxan gaude" Lelopean Irun-Hendaiaiko mugan.

Ekintza honen bidez, transnazionalen eta mugen papera salatu nahi izan genituen, sistema arrazista kolonial globalaren tresna gisa pertsona migratzaileen bizitzak erasotzen dituztelako. Gure helburua, mende-baldeak Hegoaldeko lurraldeen eta pertsonen kontra erabiltzen den indarkeria agerian uztea izan zen.

Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxako feministok, arrazakeriak pertsona migratzaileen bizitzan duen eragina gutxitzeko ekintzak egiteko ardura eta konpromisoa onartu genuen beraz.

Horretarako Dossier bat prestatu genuen, non gai hauen inguruko gogoeta sakona egitera gonbidatzen genituen Euskal Herriko emakumeoi*.

Horrekin batera, martxaren filosofiaren bidetik, herrietan ikur gisa, zubiak eta zapiak erabili genituen. Zegatik? Izan ere, inoiz jendea konektatzeko baliagarriak izan ziren zubiak harresi bilakatu direlako, eta ez dute pertsonen joanetorria ahalbidetzen; gune horietan pertsonak diskriminatu, zapaldu, baztertu eta hil ere egiten dituzte. Hau dela eta, ezin bestekoa zaigu arrakalak sortzea zubi-harresietan, kapitalismoaren, kolonialismoaren, arrazakeriaren eta heteropatriarkatuaren adierazle direlako.

Emakumeen Mundu Martxak urratsak ematen jarraitu nahi du borroka feminista, antikapitalista eta an-

tirrazistaren alorreko mugimendu iraunkor bat eraikitze-ko, haien lurraldeetan bizitza garatzen duten pertsonei zor zaien aitortza emanez. Gure herria zatitzen duten eta milaka migratzaile eskubiderik gabe utzi eta baztertu dituzten eta oraindik ere baztertzen dituzten inposatutako mugen eta administrazio egituren gainerik ulertzen baitugu lurraldea.

Martxaren feminismoak eraiki nahi duen lurraldean, bertan bizi diren pertsona guztiek bizitza duina izango dute; horretarako, baina, ezinbestekoa da muga ikusezinak ere haustea. Horiei dagokienez, egitura arrazista horretako parte gisa kokatu behar dugu geure burua eta dagozkigun erantzukizunak onartu behar ditugu emakume migratu eta arrazializatuak bizi dituzten biolentziaren kausei aurre egiteko.

Horregatik, naiz eta Martxoaren 6an Hendaia-abiaturiko mobilizaio erraldoiaren bitartez Nazioarteko V. ekintzari amaiera eman genion, dosierra eztabaidatzen eta gure herrietan arrakalak sortzen jarraitzea ezin bestekoa deritzogu.


Bide horretan ere, LAB gure konpromisoa berresten dugu, erpinetan dauden emakume migranteen bizi baldintzak hobetzeko eta haien antolakuntzarako eta borrokarako bitartekoak eraikitzen jarraituko dugu.


Denak aske izan arte, martxan jarraituko dugu!

egin zaitez bidelagun feminista.

#UreztatuElikatzenZaituena

sarea.bilgunefeminista.eus





**PATRONAL; SI BLOQUEAIS LA
NEGOCIACION
¡¡NOSOTRAS OS BLOQUEAREMOS!!**
Apirilak 13,14,15,16 de abril
HUELGA EN LIMPIEZAS
GARDIKETAK BOBROKAN LAB

Editorial

Aún siendo imprescindibles, las condiciones laborales de las trabajadoras esenciales no han mejorado. La precariedad se ha cronificado en los sectores feminizados.

Nos reafirmamos en nuestra línea feminista que pone la vida en el centro. Vamos a revolucionar la situación de las tareas de cuidados, denunciar y luchar por las condiciones laborales de las mujeres* trabajadoras, trayendo a primera línea a los sectores feminizados. Es en esta dirección, también, donde situamos la lucha por la mejora de las condiciones laborales de las trabajadoras del hogar.

Hemos puesto en marcha nuestras líneas de intervención en los centros de trabajo para acabar con las discriminaciones que se dan en los mismos. Hemos actualizado la guía sobre la negociación de los planes de igualdad y estamos impartiendo la correspondiente formación. Estamos renovando el protocolo para luchar contra el acoso sexual, sexista o por razón de sexo e identidad sexo-genérica, con el fin de poder dar nuevos pasos.

Podemos asegurar, a día de hoy, que los pasos que hemos dado en la acción sindical feminista son notables. Pero para poder profundizar en una verdadera práctica feminista la formación es imprescindible, por ello, en este curso y por encima de todas las dificultades, hemos seguido adelante con la Escuela Feminista.

➤ Hace un año, la crisis sanitaria sacudió nuestras vidas dejando aún más al descubierto el actual conflicto capital vs vida. Ha quedado en evidencia quiénes sostenemos las vidas y en qué condiciones lo hacemos.



Mujeres trabajadoras en lucha #siemprepresenciales

Reconocimiento y dignidad para los sectores feminizados. Acabemos con la precariedad. Nuestros trabajos sostienen la vida

El 8 de marzo de este año dejamos claro nuestro mensaje. LAB expresó su compromiso de dar pasos firmes en la lucha por los derechos de las trabajadoras.

Estamos inmersas en una pandemia y en una crisis. Esta crisis, que empezó hace más de un año, ha puesto de manifiesto que las mujeres estamos en primera línea y somos imprescindible.

Durante estos meses, se ha repetido una y otra vez que las trabajadoras de cuidados son esenciales y que sin ellas el sostenimiento de la vida es imposible. Es muy conmovedor aplaudir a las cuidadoras y elogiar la importancia de sus trabajos, pero cuando se trata de llevar el discurso a la práctica, se acaban las facilidades. No se han mejorado las condiciones laborales que eran malas de por sí. No se han reforzado las plantillas. No se han incrementado los ratios en las residencias de la tercera edad, ni en el servicio de ayuda a domicilio. No se han tomado medidas para garantizar la salud laboral.

En este contexto presentamos un informe para denunciar la situación de los sectores feminizados. Las principales conclusiones son las siguientes:

Las mujeres* somos el colectivo con mayores tasas de temporalidad y parcialidad. El acceso al ámbito laboral no sólo afecta a los salarios, sino también a lo que se refiere a las condiciones de trabajo. Actualmente, la temporalidad se ha convertido en sinónimo de empleo inestable y precario.

En cuanto a las personas que trabajan en jornadas parciales también podemos decir otro tanto. La tasa de temporalidad de las mujeres es 8 puntos superior a la de los hombres y la tasa de parcialidad 20 puntos superior.

LAB ha actualizado su propuesta de Salario Mínimo Interprofesional del País Vasco, proponemos que sean 1400 € en 2021. Hemos analizado los convenios de sectores feminizados aplicables en Hego Euskal Herria y hemos llegado a la conclusión de que la mayoría de las trabajadoras y/o categorías se sitúan por debajo de esta cifra.

Por tanto, los salarios inferiores a 1400 € brutos mensuales en el año 2021 no garantizan la posibilidad de desarrollar una vida digna.

Analizados los convenios que regulan las condiciones laborales en Hego Euskal Herria, hay muchas personas que no llegan a ese salario mínimo, más aún en el caso de las mujeres*. De hecho, en casi todos los convenios de los sectores feminizados que hemos analizado hay categorías por debajo de 1400 €.

Uno de los sectores más feminizados es el de los servicios privados. La mayoría de las trabajadoras que tienen reguladas sus condiciones laborales a través de convenios de este sector, y que están trabajando en sectores feminizados, están recibiendo a cambio de su trabajo un salario menor de lo que necesitaríamos para vivir dignamente. Tras la revisión de los convenios,

afirmamos todos tienen categorías cuya retribución es inferior a 1400 € mensuales.

En el comercio alimentario nos encontramos con sueldos de 932 € brutos, y en el comercio general de 816 €. También cabe mencionar la limpieza en edificios y locales, ya que en los convenios de todas las provincias, más de la mitad de las categorías están por debajo del Salario Mínimo Interprofesional que proponemos.

Es importante recalcar que todos los convenios que hemos identificado como feminizados tienen categorías con salarios inferiores a 1400 € mensuales.

Siguiendo con el análisis, el 8,3% de los trabajadores de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) nunca ha regulado sus condiciones laborales por convenio laboral. El 75% de ellos son mujeres*. La desregularización está estrechamente ligada a la precariedad. La mayoría de estas trabajadoras son, además, trabajadoras del hogar, bajo un régimen especial que contempla peores condiciones laborales, situándolas en una posición aún más precaria y vulnerable. Resumiendo, entre las y los trabajadores que no regulan sus condiciones de trabajo por convenio, 3 de cada 4 son mujeres*.

Todo lo hasta ahora mencionado provoca, entre otras cosas, que el salario de los hombres sea un 29,4% más alto que el de las mujeres*. Del análisis de la evolución de los últimos diez años se deduce, además, que no ha habido mejoras. El sistema patriarcal nos ha impuesto la división sexual del trabajo.

Asimismo, la brecha salarial por género también es estructural en las pensiones. De hecho, a la hora de crear el sistema de pensiones se tomó como referencia el trabajo remunerado masculino.

Además, la brecha salarial por género se mantiene. Todas estas razones permiten que también haya una brecha de género en las pensiones, más profunda que la brecha salarial. De hecho, las pensiones de los hombres son un 68,4% superiores a las de las mujeres*. También hemos podido constatar la extensión de la pobreza entre las mujeres* pensionistas.

Para terminar con la exposición de las conclusiones hay que decir que actualmente los principales convenios relacionados con el cuidado y los sectores feminizados se encuentran en situación de bloqueo.

En las residencias de mayores la situación es alarmante. En general, no hay suficientes trabajadoras,

la carga de trabajo es excesiva y sufren una alta exposición a riesgos laborales ergonómicos y psicosociales. Los usuarios y usuarias no reciben la calidad asistencial necesaria.

Los decretos reguladores de las residencias de personas mayores de la CAPV no mejoran los ratios actuales. Estos decretos están basados en criterios economicistas y privatizadores, resultando, en definitiva, más barato para las instituciones, beneficioso para las empresas, demasiado caro para los residentes y perjudicial para las trabajadoras.

 Bajo el lema “Emakume* langileok kalera” hicimos una apuesta firme para organizar la ofensiva sindical. El llamamiento para la organización feminista ha sido un activo. Necesitamos herramientas legales y condiciones para cambiar nuestra situación. Ahora es prioridad la lucha por los convenios colectivos propios y dignos.

En el Servicio de Ayuda a Domicilio se encuentran igual. No se garantizan las jornadas que contemplan los contratos, ni se garantizan los derechos de salud laboral de las trabajadoras. Las horas de servicio que se les asigna son insuficientes. Todas son mujeres de mediana edad y la mayoría con jornadas parciales.

Por último las empleadas de hogar tienen regulados sus derechos laborales por el Real Decreto 1620/2011, de 14 de noviembre, que las deja en situación de total precariedad e indefensión.

En este sistema heteropatriarcal las mujeres* estamos condenadas a vivir en precariedad absoluta. El 8 de marzo propusimos las siguientes reivindicaciones y líneas a trabajar:

- ① Asegurar la dignidad de todas las personas que trabajan en el sector de cuidados. Reconocimiento político, económico y social. Regulación de todo el personal y garantizar sus derechos.
- ① Condiciones laborales dignas en todos los sectores feminizados.
- ① Eliminación de la brecha salarial.
- ① Reconocimiento de la deuda patriarcal.
- ① Convenios colectivos propios en sectores feminizados.

La urgente necesidad de un sistema vasco público-comunitario de atención a los cuidados.

Desde el último congreso en 2017, la idea de un sistema vasco público comunitario de cuidados ha ido tomando fuerza. Idea que venimos reivindicando con intención de dar solución al problema central del conflicto capital-vida: el reparto social justo de los cuidados.

Tenemos pendiente el ejercicio colectivo de sentarnos a debatir en profundidad sobre ello. Definir qué es para LAB ese sistema, cómo nos lo imaginamos o cuáles serían los elementos comunes para su construcción.

Una necesidad urgente

En los últimos tiempos estamos hablando mucho de la necesidad de un sistema vasco público comunitario de cuidados, y las razones para ello son múltiples; acabar con la explotación y el negocio generado alrededor de los cuidados y construir un modelo de cuidados más justo para todas las personas. Sin embargo, no hemos llevado a cabo, todavía, el ejercicio de definir y dar forma colectivamente a este sistema del que hablamos. Tenemos pendientes sentarnos y empezar a poner en común entre toda la sociedad qué sistema queremos y para qué, definir de qué estamos hablando y hacerlo de manera compartida y colectiva. LAB, organizará unas jornadas en junio para poder ir clarificando nuestras ideas para cuando llegue el momento de compartir pareceres con el resto de agentes sociales.

El injusto reparto estructural de los cuidados

El movimiento feminista puso sobre la mesa las claves para empezar a mirar al sistema desde otra perspectiva, nombrándolo con todos sus "apellidos": sistema capitalista, heteropatriarcal, racista, colonialista y ecocida. Nos dio pistas, también, para entender que el conflicto capital-trabajo era más amplio, que abarcaba hasta la vida. Este conflicto irresoluble denominado capital-vida, nos hacía entender que la vida no era posible en el capitalismo, ya que este se sostenía atacando la vida.

En Euskal Herria esto supuso dos años de movilizaciones multitudinarias y huelgas de cuidados para denunciar que la vida no se sostenía sola, que tras la aparente "normalidad" en la prestación de los cuidados, había una explotación y una falta de reconocimiento generalizada de todos los trabajos de cuidados realizados por mujeres*

La necesidad de los cuidados para el sostenimiento de la vida

Nadie duda, a estas alturas, de que los cuidados son necesarios e imprescindibles para el sostenimiento de la vida, de que todas las personas necesitamos o necesitaremos cuidados en diferentes momentos a lo largo de nuestras vidas.

En lo que no hay acuerdo es cómo, quién y en qué condiciones se deberían prestar esos cuidados para que no supongan la explotación de ninguna persona, ni un negocio lucrativo para nadie, ni que nadie se escape de realizar la cuota de cuidado que le corresponda.

Hoy en día, los cuidados ocupan el lugar más bajo de reconocimiento en nuestra sociedad. Somos las mujeres* quienes los estamos prestando de manera totalmente precaria en el mercado laboral o de manera gratuita en los hogares debido a la falta de corresponsabilidad. Cuando se dan desde el mercado laboral, el panorama es desolador: privatización, invisibilidad, negocio, feminización y precariedad



absoluta. Las condiciones laborales son nefastas: jornadas interminables, sueldos míseros, temporalidad y parcialidad en las contrataciones, falta de seguridad y salud laboral, ratios insuficientes para atender a las personas de manera digna...

Hay una falta total de reconocimiento económico, social y político de los trabajos de cuidados y esto tiene consecuencias: la explotación de muchísimas mujeres en condiciones indignas de trabajo, la falta de reparto de las tareas de cuidados y el gran negocio que se está generando alrededor de los cuidados, sobre todo en servicios básicos como la ayuda a domicilio y las residencias de personas mayores. Sin olvidar, además, la mayor discriminación que están enfrentando las mujeres migradas y racializadas. No hay más que mirar a las trabajadoras de hogar. Es decir, que si hablábamos de la existencia de una división sexual del trabajo, a esto hay que añadirle también la división racial que opera hoy día.

Es urgente revertir, de una vez, esta situación


No podemos seguir mirando hacia otro lado ante el negocio de las residencias de mayores y la ayuda a domicilio. Es necesario que se pongan en marcha, cuanto antes, los mecanismos necesarios para hacer posible un reparto más justo y equitativo de los cuidados. Es obligatorio analizar en qué situación laboral están los sectores feminizados relacionados con los cuidados y revertir de una vez esta situación.

Por todo esto y porque entendemos que tenemos mucho que aportar como sindicato, vamos a ir definiendo el sistema de cuidados que pueda ir abriendo otro horizonte para transformar la actual organización de estos.

En las jornadas que organizaremos para debatir sobre todo esto intentaremos, de manera colectiva, ir respondiendo a las siguientes cuestiones: a qué llamamos cuidados, qué definimos como público y qué como comunitario. Cómo se entrecruza todo esto en el mundo laboral y, desde ahí, cuál puede ser nuestra contribución.

Se trataría, en último término, de ir definiendo, aterrizando y concretando ese sistema del que hablamos. Porque tal y como está ahora es insostenible.

Fotonoticias



> ¡Identifica, denuncia y combate la violencia machista!

La violencia machista es estructural. Se da, por tanto, también en los centros de trabajo y es responsabilidad de todas y todos poner en marcha todos los recursos y mecanismos para que esto no ocurra. Queremos subrayar la importancia que tienen los protocolos contra la violencia machista. El 25 de noviembre nos movilizamos ante varios centros de trabajo exigiendo su elaboración y puesta en marcha.



> 22 de febrero. Contra la brecha salarial

Hay que reconocer todos los trabajos feminizados dignificando las condiciones laborales en las que se prestan. A su vez, los poderes públicos tienen la obligación de acabar con esta segregación laboral, obligando a las empresas a acabar con las contrataciones discriminatorias. Si nuestros trabajos son fundamentales, exigimos unas condiciones de trabajo dignas para realizarlos.

¡Acabemos con la división sexual del trabajo!

¡Publicación de los servicios de cuidados!



> 8 De marzo. Reconocimiento y dignidad en los sectores feminizados

Las mujeres* de LAB nos reunimos el pasado 8 de marzo para denunciar la situación de los sectores feminizados. Nos concentramos frente a la sede del EAJ-PNV, responsable de la pobreza y el negocio que se da en estos sectores, y les dejamos allí nuestras herramientas de trabajo: escobas, fregonas, pañales, guantes...

Somos imprescindibles y queremos condiciones laborales dignas. Nos comprometimos a organizar una ofensiva sindical feminista para combatir la precariedad.



> Hemos presentado el protocolo interno para la gestión de casos de violencia machista

Hemos presentado en el sindicato el protocolo interno para la gestión de casos de violencia machista. Protocolo basado en claves transformadoras y reparadoras y que presentamos como un instrumento de la estrategia feminista del sindicato, dentro la lógica del Plan Feminista que tenemos en marcha.

Es una herramienta que, partiendo de la realidad actual, quiere ser útil y práctica y que nos ayudará a realizar una gestión coherente y colectiva ante casos de violencia machista en nuestra comunidad; así como ofrecer la posibilidad de abordarlo desde la prevención, formación y la reflexión colectiva.

Zubi guztien gainetik, MUGARIK EZ! TRANснаZIONALIK EZ! ¡Resistimos para vivir, marchamos para transformar!



El 17 de noviembre de 2020 iniciamos en Euskal Herria la V. acción internacional de la Marcha Mundial de las mujeres bajo el lema “Zubi guztien gainetik, MUGARIK EZ! TRANснаZIONALIK EZ!; Resistimos para vivir, marchamos para transformar! en la frontera Irun-Hendaia.

Con esta acción quisimos denunciar el papel de las transnacionales y las fronteras, que atacan las vidas de las personas migrantes como instrumentos del sistema racista colonial global. Nuestro objetivo fue visibilizar la violencia de Occidente contra los territorios y las personas del Sur.

Las feministas de la Marcha Mundial de las Mujeres de Euskal Herria asumimos, por tanto, la responsabilidad y el compromiso de realizar acciones encaminadas a minimizar el impacto del racismo en la vida de las personas migradas.

Para ello, preparamos un dossier en el que invitábamos a las mujeres* de Euskal Herria a reflexionar en profundidad sobre estos temas.

Junto a ello, por el camino de la filosofía de la marcha, como símbolo en los pueblos, utilizamos puentes y pañuelos. ¿Por qué? Porque los puentes que alguna vez fueron útiles para conectar a la gente, se han convertido en murallas y no permiten el tránsito de personas; en esos espacios las personas son discriminadas, pisoteadas, rechazadas e incluso asesinadas. Por este motivo, nos resulta imprescindible la creación de grietas en esos muros-puente, porque son un indicador del capitalismo, el colonialismo, el racismo y el heteropatriarcado.

La Marcha Mundial de las Mujeres quiere seguir dando pasos para construir un movimiento feminista, antipa-

pitalista y antirracista, dando el reconocimiento debido a las personas que desarrollan su vida en nuestro territorio. Porque entendemos el territorio por encima de las fronteras y estructuras administrativas impuestas que dividen a nuestro país y que han dejado excluidas a miles de migrantes sin derechos.

En el territorio que el feminismo de la Marcha quiere construir, todas las personas que vivan en él tendrán una vida digna, pero para ello, es imprescindible romper también las fronteras invisibles. Por tanto, debemos situarnos como parte de esa estructura racista y asumir las responsabilidades que nos corresponden para hacer frente a las causas de la violencia que viven las mujeres migradas y racializadas.

Por ello, a pesar de que el 6 de Marzo finalizamos la V. acción mediante una gran movilización entre Hendaia e Irún, nos parece imprescindible seguir debatiendo el dossier y profundizando en esas grietas que queremos crear entre todas.

También en ese camino, LAB reafirmamos nuestro compromiso para seguir construyendo medios para mejorar las condiciones de vida de las mujeres migradas mediante su autorganización y reforzando sus luchas, que también son nuestras.

¡Seguiremos en marcha, hasta que todas seamos libres!

egin zaitez bidelagun feminista.

#UreztatuElikatzenZaituena

sarea.bilgunefeminista.eus

